

Espiritualtasunaren zeinuak

‘EUSKAL HERRIKO HILARRIAK’ ERAKUSKETEA. XVII. gizaldira arteko hiliarri esanguratsuenak, Gernikako Euskal Herria Museoa

Hasier Rekondo | GERNIKA

Gernikako Euskal Herria Museoa *Euskal Herriko Hilarriak* erakusketea ikusi ahal izango da, datoren urteko apirilaren 7ra arte.

Oroimenearen oroigarriak diran hiliarriak, artelan bihurtzen dira erakusketa honetan. Hogeita bat gizalditan zehar egini-ko ibilbide historikoa laburbildu dabe erakusketako antolatzaileek: hiliarrien urrezko garaia izaniko XVII. gizaldira arteko ibilbide historikoa.

Pirinear Atlantikoko hogeitahirri esagurantsuenak miretsi leitekez Gernikako Museoa. Hildakoei eskainitako artelanok hamabost museoetatik ekarri dabez. «Europako egitasmo baten barruan kokatzen da erakusketea: Euskal Herriko, Portugalgo eta Frantziako hamabost museoaren lankidetzaren lanari esker gauzatu ahal izan dan *Hilarriak biribilketan* izeneko proiektua», adierazoten dau Ikerne Lakarra Gernikako museoaren teknikariak.

Donostiko San Telmo Muse-



ONINTZA ENBEITA

HILARRIAK, ARTELAN. Frantzia, Portugal eta Euskal Herriko museoetatik ekarritako hiliarriak miretsu leitekez Gernikan.

oa buru dala, Europako Batasuneko Kultura 2000 egitasmoaren dirulaguntzea izan dau ekimenea.

Hiliarrien kultur ondarearen ganeko ikerketa, zabalkundea eta sentsibilizazioa sustatu gura dau Bizkaiko Foru Aldundiak, erakusketearen sustatzailer nagusiak.

HILARRIEN ESANAHIAK

Hildakoaren irudikapenak eta eguzkiari edo argizagiei eginiko erregutzeak islatzen dabez hiliarriek

Hiliarrien esanahiairen ganean antropologoek erabilten dabezan teoria onartuenen artean, hildakoen irudikapenak eta eguzkiari edo argizagiei eginiko erregutzeak islatzen dabezala da zabalduena.

Hilarria, harrigizona eta hilargia

Euskal Herrian, hilarria, harrigizona eta hilargia berbak erabili izan dira, hiliarri mota ezberdinak izendatzeko. «Euskal Herrian oso emonkorak izan dira, historian zehar, hilarriak», generatzen dau Lakarrak.

Erakusketeak ez dau ahazten alde didaktikoa: eskola umeei zuzendutako maleta didaktikoa esplorazioa (brujulak eta metroak), hiru puzzle, eskuz landutako hilarri baten mapea, bideoak, CD-Romak eta irakasleentzako gidea eskaintzen dauz.

Heriotzearen errealidadea ezkutatzeko ahalgintzen dan gizarte baten ez da ohizkoena hildakoen oroigarrien ganeko erakusketea eratzea, baina garai galdu bateko espiritualtasunaren zeinuak diran hilarriek herrien jatorria argitu leikie.

LABURREAN

ALDUNDIA

Sustapen Ekonomikorako sailak ‘Ciudadcity.net’ urien ganeko informazio proiektua babestuko dau

Bizkaiko Foru Aldundiko Sustapen Ekonomikorako sailak *CiudadCity.net* proiektu barria babestuko dau. Proiektuan, barruan dagozan urien ganeko informazioa eskainiko dabe, interneten bidez. Tontxu Campos diputauak adierazotakoaren arabera, «Bilbo barruan dala, urien arteko sarea osotzea» izango dau helburu web atari barriak. Hasiera baten, urietako alde zaharrak barrizteko informazioa erabiliko dabe, «baina ibilbide luzeagoa izango dau proiektuak». Sareak, bestalde, turismoa, kultura eta aisialdia jorratuko ditu. Angel Murua urigintza arkitektoa izan da ideia honen bultzatzailea, bere eritxian, «urigintzearen kudeaketea, kultura edo negozioak egiteko sarea» osotuko dabe. Orain arte, Bartzelona, Habana, Miami Beach, San Juan, Buenos Aires, Lima, Liverpool, Bilbo, Donosti eta Iruñea uriek sarean sartzeko asmoa erakutsi dabe. Sareko lehen uri alkartua Panama izan da.

BARAKALDO

Ezinduen eskubideen aldeko kanpaina

Barakaldoko Udalak eta udalerriko Ezindu Fisikoen Alkartea ezinduen eskubideen aldeko sentsibilizazio kanpaina ipini dabe martxan. *Mugak hausten* lelopeko egitasmoak «uritarren kontzientziazioa» izango dau helburu. Euskeraz eta gaztelaniaz idatzitako 3.000 triptikoa bananduko ditue, herritarren artean. Ezinduen ganeko jarrera ezkorak alboratzeko edo auto sarbideak errezteko eskatzen jake, besteak beste, herritarrei.

BARAKALDO

Mikologia erakusketea, Mespelerreka auzoan

Barakaldoko Historia eta Ingurumen Interpretazio Zentroak, Mespelerrekako eskolak egozan eraikinean (Regato), mikologia erakusketea hartuko dau, urtarilaren 5era arte. Bisitariak jateko perretxikoen ganeko ezaugarriak, izendapen zientifikoa edo arrunta, eta aurkitzeko lekuaren ganeko informazioa eukiko dabe. Asteburuetan izango da zabalik. Zapatuetan 11.30-15.00 eta 16.00-19.00 orduetartean; domekan 11.00etatik-15.00etara.

SANTURTZI

Udal gobernuak enpresa pribauak zerbitzueterako kontratetako erabagia salatu dau IU-EBk

Santurtziko IU-EB alderdiak PSE-EEko udal gobernuak zerbitzueterako enpresa pribauak kontratetako politikea kritikau dau. Rakel Modubar Ezker Batuko zinegotziak zerbitzuon kudeaketa zuzena eskatu dau. «Enpresok ezin dira kontrolpean euki, euren langileekin daukiezan betebeharren alorrean bidez be», Modubarren berbetan. Ezker Batuak etxez etxeko laguntzea eskaintzen dauen Syasdo enpresea salatu eban. «Enpresa pribauekin ezin da zerbitzu ona ziurtatu».

PORTUGALETE

Euro kalkulagailuak bananduko ditue

Portugaleteko Udalak 18 mila euro kalkulagailu bananduko ditu, udalerriko familien artean. «Euroaren etorrerari aurre egiteko tresna egokienak emongo deutseguz famili guztiei», adierazo dau Mikel Cabieces alkatea. Udalak 4 milioi pezetako inbertsioa egingo dau euro kalkulagai-

luak erosteko. Udaleko web orrialdeko publizidadearekin ordainduko dogu inbertsioa». Kalkulagailuetan, herriko armaria eta web orrialdeen helbideak ipiniko ditue. Beste alde batetik, Kultura Sailak beste 18 mila kuaderno bananduko ditu Gabonetako jaien ganeko egitarauaren nondik norakoa azaltzeko herritarrei. Udalak 10 milioi pezeta gastauko ditu, jai egitaraua prestatzeko.



ONINTZA ENBEITA

HILDAKOEN OROIMENA. Euskal Herrian, hildakoak oroimenan gordetako irudikapen modura erabili izan dira hilarriak.